



Bilbon, 2020ko urtarrilak, 8

Behe Ipar Harmailako bazkide agurgarria:

Jakingo duzunez, gure legislaturaren hasieratik San Mamesen animazio harmaila bat bateratzeko ideian ekin diogu lanari.

Gure Klubaren etorkizunerako gure bazkide eta zale gazteenak batzeko tokia eta eserlekuak lortzea ezinbestekoa deritzogu. Animazio aurrealde popularrak belaunaldi athleticzale berriak hurbiltzeko eta fidelizatzeko oso erakargarriak dira. Eta, gainera, Athletic bezalako club batek burutu behar duen indar bat dira.

Gaur eguneko San Mamesen 44.000 bazkide baino pixka bat gehiago gara eserleku bat betetzen dugunok. Harmaila popular hau burutzeko gainontzeko eserleku libreekin egin behar dugu lan, 9.000 inguru. Hauek honako kokapenetan daude, nagusiki: bisitarien zaleentzako erreserbatutako zonaldea, europar txapelketentzako konpromezuentzako eserlekuak, eraztunarenak eta zelaian zehar sakabanatuta dauden lokalitate libreak.

Klub bezala, gaur egun ditugun abonatu popularren taldeak bateratzeko gune sektorizatu bat sortzea da gure helburua, Behe Ipar Harmailan, zutik egoteko lokalitateekin (homologatutako "safe standing"). Une honetan 800 lokalitate okupatzen dituzte 110. blokean, 625 lokalitate 124. blokean, eta 1.080 lokalitate Gazte Abonuentzat erreserbatuta 323 eta 324. blokeetan.

Etorkizuneko ipar harmaila popularra beheko ilaretatik hasiko da implementatzen, 105, 106, 107, 108, 109 eta 110. blokeetan zehar. Bloke hoietako goiko ilaretan, zeharkatzen ere, ipar Harmaila bat mantenduko da, eserlekuekin, harmaila berri honetan mantendu nahi diren bazkideentzat.

Ekimen hau errazteko eta bultzatzeko, datozen hiru denboraldietan, bakarka edo taldeka kokapena hobetzeko euren eserlekua aldatu nahi duten Behe Ipar Harmailako bazkideek lehentasuna izango dute lokalitate aldaketa prozesuetan, antzinasun ordenean.

Zu Behe Ipar Harmailan gaur egun tokia partekatzen duten bazkide bat zarenez, Athletic Clubetik pertsonalki eta zuzenean erakutsi nahiko genizkizuke garatu dugun aukera teknikoen gaurkotutako azterketa, ipar harmailaren bazkideen plataformarekin adostu dugun akordioa eta, era berean, izan dezakezun edozein zalantza azaldu. Bai etorkizuneko Behe Ipar Harmailan esertzeko lokalitate batetan egotea aukeratu nahi baduzu, bai zure eguneko kokapena hobetu nahi baduzu eta baita etorkizuneko animazio harmailaren parte izan nahi baduzu ere. Datozen asteetan aipatutako tribunaren bazkide guztiak deituko ditugu telefonoz informatzeko baina, nahi izan ezker, 94 685 41 69 zenbakira deitu gaitzakezu.

Lerro hauekin, zure denbora eskertuz eta 2020 urterako hoberena opatuz, agur bero bat bidalitzen dizugu.

Aitor Elizegi Alberdi
Presidente

